# I DIPUTACION FORAL DE ALAVA ARABAKO FORU ALDUNDIA I

## DISPOSICIONES Y RESOLUCIONES ADMINISTRATIVAS

*- Acuerdos del Consejo de Diputados*

**7.914**

**ACUERDO 1.003/1999 del Consejo de Diputados de 16 de noviembre, que aprueba la suscripción de un convenio con el Ayuntamiento de Barrundia para la realización de diversos trabajos complementarios al deslinde realizado de montes públicos del término municipal, así como concederle una subvención por importe de 3.281.824 pesetas (19.724,16 euros).**

*- Ordenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**7.653**

**ORDEN FORAL 1280, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 8 de noviembre de 1999, por la que se aprueba el modelo 216 de Retenciones e ingresos a cuenta sobre rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanente.**

La Norma Foral 7/1999, de 19 de abril del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, regula de forma unitaria la tributación de los no residentes en los impuestos sobre la Renta. Esta Norma, tal y como se indica en su exposición de motivos, no supone una innovación radical en el área de la tributación de los no residentes, pero sí introduce ciertas novedades.

Entre las mismas, tiene una gran importancia el sistema de retenciones que establece la Norma en su artículo 30, según el cual, con carácter general, determinadas personas o entidades que satisfagan o abonen rentas sujetas al Impuesto, vendrán obligadas a retener o ingresar a cuenta una cantidad equivalente al propio Impuesto, de acuerdo con las particularidades que se recogen en el citado artículo.

A estos efectos, el apartado 5 del artículo 30 de la Norma establece que el sujeto obligado a retener y a practicar ingreso a cuenta deberá presentar declaración y efectuar el ingreso en la Diputación Foral de Alava, en el lugar, forma y plazos que se establezcan, de las cantidades retenidas o de los ingresos a cuenta realizados o declaración negativa cuando no hubiera procedido la práctica de los mismos.

Además, los sujetos obligados a retener van a tener esta consideración a todos los efectos, ya que en virtud de lo establecido en el párrafo segundo del apartado 1 del artículo 8 de la Norma, la responsabilidad solidaria no existirá cuando resulte de aplicación la obligación de retener o ingresar a cuenta.

En consecuencia, para poder llevar a la práctica esta obligación de retener, se hace necesario un nuevo modelo de declaración e ingreso, que se recoge en el anexo de esta Orden Foral y que se complementará con el resumen anual que se aprobará en una próxima Orden Foral.

Por otra parte, en la disposición adicional primera de esta Orden Foral se establece una norma con un objetivo clarificador. Mediante la misma sigue vigente el modelo 211, aprobado mediante Orden de 23 de diciembre de 1997, para efectuar la declaración e ingreso de la retención del 5 por 100 a que están obligados los adquirentes de bienes inmuebles a no residentes.

Visto el informe de fecha 26-10-99 emitido al respecto por la Jefa del Servicio de Relación con los Contribuyentes.

En uso de la facultad contenida en la disposición final primera de la Norma Foral 7/1999 por la que se autoriza al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución de la misma,

## XEDAPENAK ETA ADMINISTRAZIO EBAZPENAK

*- Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

**7.914**

**1.003/1999 ERABAKIA, azaroaren 16ko Diputatuen Kontseiluarena, zeinen bidez Barrundiako Udalarekin hitzarmen bat sinatzea onesten den, udal barrutiko mendi publikoetan egindako mugarritzearen zenbait lan osagarriak egiteko, baita 3.281.824 pezetako (19.724,16 euro) zenbatekoaz dirulaguntza bat ematea ere.**

*- Foru Aginduak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**7.653**

**1280 FORU AGINDUA, 1999ko azaroaren 8ko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Diputatuarena. Honen bidez, 216 eredua onartzen da, establezimendu iraukorraz baliatu gabe irabazitako errenten gainean kontura egindako erretentzioei eta diru sarrerei buruzkoa, hain zuzen.**

Apirilaren 19ko 7/1999 Foru Arauak, Ez-egoiliarren Errenten gaineko Zergei buruzkoak, era bakarrean arautzen du ez ez egoiliarren zerga ordainketa Errenta gaineko zergen kasuan. Arau honek ez du erabateko berrikuntzarik ekarri ez-egoiliarrek zergak ordaintzeko, baina aldaketa batzuek bai, sarreran, azalpenak ematerakoan, adierazten den bezala.

Eta horien artean aipagarria da Arauaren 30. artikuluak ezartzen duen erretentzio sistema. Erretentzio sistema horren arabera, zergapeko errentak ordaitzen dituzten zenbait pertsona edo erakunde zerga dela eta ordaindu beharreko diru kopuru bera kontuan sartzera edo erretenitzera beharturik daude, beti ere, artikuluan aipatzen diren ezaugarriak errespetatuz.

Arauak, 30. artikuluaren 5. atalak, honako hau ezartzen du: Kontura diru sarrerak edo atxikipenak egitera beharturik dagoen zergadunak atxikipena egiterakoan aplikatu zaien diru kopuruen edo kontura sartutako diru sarreren edo aitorpen negatiboaren errenta aitorpena aurkeztu beharko du eta dirua sartu Arabako Foru Aldundian, ezarriko diren leku, era eta epeetan, beti ere, aldez aurretik ez badu atxikipenik izan.

Eta gainera, atxikipena nahitaez egin behar zaien zergadunek izaera hori mantenduko dute beti eta kasu guztietan, izan ere, Arauak, 8. artikuluaren 1.atalaren bigarren paragrafoaren arabera, ez da inolako erantzukizun solidariorik izango baldin eta erretentzioa egiteko edo kontuan dirua sartzeko obligazioa gauzatu nahi bada.

Beraz, atxikipen obligazio hori praktikan jartzeko aitorpen eta diru sarrera-eredu berri bat behar da. Eredu hori Foru Arau honen eranskinean dator, eta hurrengo Foru Aginduan onartuko den urteroko laburpenarekin osatuko da.

Bestalde, Foru Agindu honen lehen xedapen gehigarrian ezartzen den arauak helburu garbia du: Horren bidez, 211 ereduak darrai indarrean kasu honetan ere, 1997ko abenduaren 23ko Agindu bidez onartutako ereduak, hain zuzen. Eredu horren arabera, ez-egoiliarren ondasun higiezinak erosten dituzten zergadunak beharturik daude errentaren %5eko atxikipena eta aitorpena egitera.

Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuburuak 99-10.26an igorritako txostena ikusi da.

7/1999 Foru Arauaren azkeneko lehen xedapenak Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Foru Diputatuari agindu hori gauzatzeko eta garatzeko behar adina xedapen ebazteko ahalmena ematen dio, eta ahalmena horretaz baliaturik,

DISPONGO:

PRIMERO.- Aprobación del modelo 216.

Se aprueba el modelo 216 "Impuesto sobre la Renta de no Residentes. Rentas obtenidas sin mediación, de establecimiento permanente. Retenciones e ingresos a cuenta. Declaración-liquidación". Dicho modelo, que figura como anexo de la presente Orden Foral, consta de dos ejemplares: un ejemplar para la administración y un ejemplar para el interesado.

SEGUNDO.- Obligados a presentar el modelo 216.

Uno.- Este modelo deberá ser utilizado por los sujetos obligados a retener o a efectuar ingreso a cuenta sobre las rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanente por contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, a los que se refiere el apartado 1 del artículo 30 de la Norma Foral 7/1999 del 19 de abril y los apartados 2 y 3 del artículo 29 del Decreto Foral 6/1999 de 26 de enero, para realizar el ingreso en la Diputación Foral de Alava de las cantidades retenidas o de los ingresos a cuenta efectuados.

Dos.- El modelo 216 también se utilizará por los citados obligados en los casos en los que, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 30 de la Norma Foral 7/1999 del 19 de abril, del Impuesto sobre la Renta de los no Residentes, no proceda practicar retención o ingreso a cuenta. En estos casos se indicará el número y el importe de las rentas satisfechas a los no residentes sin establecimiento permanente en el período a que se refiera la declaración y, cuando proceda, de acuerdo con lo dispuesto en el punto 2 del artículo 29 del Decreto Foral 6/1999 de 26 de enero, también se indicará el número y el importe de los rendimientos y ganancias patrimoniales obtenidos por los no residentes sin mediación de establecimiento permanente en el referido período.

Tres.- No se tendrán en cuenta a efectos de lo dispuesto en el número dos anterior, las siguientes rentas:

1º.- Las rentas a que se refiere el artículo 13.1 a) de la Norma Foral 7/1999 de 19 de abril del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

2º.- Las rentas derivadas de valores emitidos en España por personas físicas o entidades no residentes sin mediación de establecimiento permanente, cualquiera que sea el lugar de residencia de las instituciones financieras que actúen como agentes de pago o medien en la emisión o transmisión de los valores.

3º.- Los rendimientos de las cuentas de no residentes que se satisfagan a contribuyentes de este Impuesto, salvo que el pago se realice a un establecimiento permanente, por el Banco de España o por las entidades registradas a que se refiere la normativa de transacciones económicas con el exterior.

4º.- Los intereses de la Deuda Pública en Anotaciones, sujetos a un procedimiento especial de pago de los mismos o de devolución de retenciones.

5º.- Las rentas exceptuadas de la obligación de retener y de ingresar a cuenta enumeradas en los apartados b) y c) del artículo 28-1 del Decreto Foral 6/1999 de 26 de enero.

6º.- Las rentas a que se refiere el apartado 2 de la Disposición Final Primera de la Norma Foral 24/1996 del Impuesto sobre Sociedades.

TERCERO.- Lugar de presentación e ingreso.

Uno.- Si de la declaración-liquidación resulta cantidad a ingresar, la presentación y el pago simultáneo de las cuotas se efectuará en las entidades bancarias de crédito o ahorro autorizadas para actuar como entidades colaboradoras por la Diputación Foral de Alava. Las declaraciones-liquidaciones deberán llevar obligatoriamente adheridas las etiquetas identificativas (la identificación de la unidad de cuenta pesetas o de la unidad de cuenta euros, según se opte por declarar o autoliquidar en una u otra moneda) que facilita el Servicio de Relación con los Contribuyentes de la Dirección de Hacienda de la Diputación Foral de Alava.

Dos.- Tratándose de declaraciones-liquidaciones negativas, éstas deberán presentarse en el Servicio de Relación con los Contribuyentes de la Diputación Foral de Alava. Igualmente éstas deberán llevar adheridas obligatoriamente las etiquetas identificativas.

XEDATU DU:

LEHENA.- 216 eredua onartzea.

216 eredua onartzen da, hau da, "Ez-egoiliarrren Errenta gaineko Zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Kontura egindako atxikipenak eta diru sarrerak. Aitorpena-likadazioa". Agindu honen eranskinean jasotzen den eredu horrek bi atal ditu: atal bat Administrazioarentzat, eta bestea interesdunarentzat.

BIGARRENA.- 216 eredua aurkeztera beharturik daudenak.

Bat.- Apirilaren 19ko 7/1999 Foru Arauan, 30. artikuluaren 1. atalean, jasotzen denaren arabera, eta urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuan, 29. artikuluaren 2 eta 3 ataletan jasotzen denaren arabera, honako hauek erabili beharko dute eredu hau kontura egindako atxikipenei eta diru sarrerei dagozkien diru sarrerak Arabako Foru Aldundian egiteko: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten gaineko atxikipena edo konturako sarrera egin beharra dutenek.

Bi.- Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 19ko 7/1999 Foru Arauaren 30. artikuluko 4. atalean ezarritakoaren arabera, atxikipenik edo konturako sarrerarik egin behar ez den ksuetan ere erabiliko dute 216 eredua aurreko atalean aipatutakoek. Kasu horietan, aitorpenari dagokion epealdian establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei ordaindutako errenten kopurua eta zenbatekoa adieraziko dira eta, bidezko denean, urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 29. artikuluko 2. puntuan ezarritakoaren arabera, aipatutako epealdian ez-egoiliarrek establezimendu irankorrik gabe lortutako etekin eta ondare-irabazien kopurua eta zenbatekoa ere adieraziko dira.

Hiru.- Aurreko lerroaldean aipatutakoaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko honako errenta hauek:

1.- Ez-Egoiliarren Errenta gaineko Zergari buruzko apirilaren 19ko 7/1999 Foru Arauaren 13.1 a) artikuluan aipatutako errentak.

2.- Pertsona fisiko edo erakunde ez-egoiliarrek eztablezimendu iraunkorrik gabe Espainian jaulkitako baloreetatik sortutako errentak, zeinahi ere delarik ordainketa-agente gisa diharduten edo baloreen jaulkipen edo eskualdaketen bitartekari diren finantza-erakundeen egoitza dagoen lekua.

3.- Zerga honen zergadunei ordaintzen zaizkien ez-egoiliarren kontuen etekinak, ordainketa Banco de Españak edo atzerriarekiko transakzio ekonomikoei buruzko araudiak aipatzen dituen erakunde erregistratuek establezimendu iraunkor bati egiten diotenean izan ezik.

4.- Oharpenetako Zor Publikoaren korrituak, ordaintzeko edo atxikipenak itzultzeko prozedura berezi batenpean daudenak.

5.- Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 28. artikuluko 1. ataleko b) eta c) letretan, atxikipena eta konturako sarrera egiteko beharretik salbuespen diren errentak.

6.- Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Arauaren Azken Xedapenetariko Lehehengoan, 2. atalean, aipatzen diren errentak.

HIRUGARRENA.- Aurkeztu edo dirua sartu beharreko lekua.

Bat.- Aitorpen-Likidazioa egin ondoren dirua sartu beharra egokituz gero, aurkezpena eta kuoten ordainketa, biak batera egingo dira Arabako Foru Aldundiak baimendutako banketxe eta aurrezki kutxa kolaboratzaileetan. Aitorpen-likidazioek identifikazio txartela agerian eraman beharko dute nahitaez (pezeten edo euroen identifikazio atala, moneta batean ala bestean egitea aukeratuz gero). Txartel horiek Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzako Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuak emango ditu.

Bi.- Aitorpen-likidazio negatiboak Arabako Foru Aldundiko Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuan aurkeztu behar dira, eta, era berean, horiek ere identifikazio txartelak eraman behar dituzte nahitaez.

CUARTO.- Plazo de presentación e ingreso.

La presentación del modelo 216, así como, en su caso, el ingreso de su importe se efectuará en los veinticinco primeros días naturales de los meses de abril, julio, octubre y enero, en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta que proceda realizar correspondientes al primero, segundo, tercero y cuarto trimestre del año natural, respectivamente.

No obstante, la presentación e ingreso a que se refiere el párrafo anterior se efectuará en los veinticinco primeros días naturales de cada mes, en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta efectuados que correspondan por el mes inmediato anterior, cuando se trate de retenedores u obligados cuyo volumen de operaciones calculado conforme al artículo 121 del Decreto Foral Normativo 12/1993 de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido, hubiera excedido durante el año natural inmediato anterior de 1.000.000.000 de pesetas, tal y como previene el número 1º del apartado tres del artículo 71 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, aprobado por el Decreto Foral 124/1993 de 27 de abril. Por excepción, la declaración e ingreso correspondiente al mes de julio se efectuará durante el mes de agosto y los diez primeros días naturales del mes de septiembre inmediato posterior.

QUINTO.- Precio del modelo 216.

El precio del modelo 216 se fija en la cantidad de 20 pesetas/0,12 euros ejemplar.

DISPOSICION ADICIONAL PRIMERA

Los adquirentes de bienes inmuebles a no residentes obligados a retener o efectuar el ingreso a cuenta a que se refiere el apartado 2 del artículo 24 de la Norma Foral 7/1999 del 19 de abril, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, deberán utilizar para la declaración e ingreso de la retención practicada o ingreso a cuenta que deba efectuarse el modelo 211, no siendo de aplicación, por consiguiente, el modelo 216 que se aprueba en esta Orden Foral.

DISPOSICION FINAL UNICA

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava.

Vitoria-Gasteiz, a 8 de noviembre de 1999.— El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

LAUGARRENA.- Aurkezteko eta dirua sartzeko epea.

216 ereduaren aurkezpena, eta, hala badagokio, dagokion zenbatekoa kontuan sartzea apirilaren, uztailaren, urriaren eta urtarrilaren lehen hogeita bost egun naturaletan egin beharko da. Aurkezpen eta diru sartze hori lehen, bigarren, hirugarren edo laugarren hiruhilekoetan kontura egindako atxikipen eta diru sarrerei dagokie, hurrenez hurren.

Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako aurkezpena eta diru sartze hori hile bakoitzeko lehen hogeita bost egun naturaletan egin beharko da, baina aurreko hilabetean kontura egindako atxikipen eta diru sarreretan oinarrituta, beti ere, honako zergadunen kasuan, hau da, urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arautzailearen 121. artikuluaren arabera, aurreko urtean 1.000.000.000 pezeta baino gehiago irabazi dituzten zergadunen kasuan, horrela jasotzen baita apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretu bidez onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 71. artikuluko 3. ataleko 1.lerroaldean. Salbuespen gisa, uztailean kontura egin beharreko atxikipena eta diru sarrerak abuztuan eta irailaren lehen hamar egunetan egingo dira.

BOSGARRENA.- 216 ereduaren prezioa.

216 ereduaren prezioa 20 pezetatan edo 0,12 eurotan finkatzen da eredu bakoitzeko.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ez-Egoiliarren Errenten gaineko Zergari buruzko apirilaren 19ko 7/1999 Foru Arauaren 24. artikuluko 2. atalean aipatzen den obligazioa dela eta, hau da, kontura atxikipenak eta diru sarrerak egitera beharturik dauden ez-egoiliarren ondasun higiezinak erosten dituzten zergadunek 211 eredua erabili beharko dute aitorpena egiteko eta kontura egindako atxikipena eta diru sarrera gauzatzeko, eta, beraz, ez da Foru Agindu honen bidez onartu den 216 eredua aplikatuko kasu horietan.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Foru Agindu hau Araba Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria/Gasteiz, 1999ko azaroaren 8a.— Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila — Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

# EZ-EGOILIARREN *ERRENTAREN GAINEKO ZERGA*
# *IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE NO RESIDENTES*

**216**

**Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak**
***Rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanente***

**ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK**
***RETENCIONES E INGRESOS A CUENTA***

ATXIKITZAILEA / *RETENEDOR*

IDENTIFIKATZEKO ETIKETA JARTZEKO GUNEA
*ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA*

**AITORPEN LIKIDAZIOA**
***DECLARACION LIQUIDACION***

EKITALDIA / *EJERCICIO* ☐☐

EPEALDIA/ *PERIODO* ☐☐

AITORPEN OSAGARRIA/ *DECLARACION COMPLEMENTARIA* ☐

LIKIDAZIOA / *LIQUIDACION*

**I. Atxikipenari lotuta dauden errentak /*I. Rentas sometidas a retención:***

| | Errenten kopurua / *N.º de rentas* | Atxikipen oinarria / *Base de las retenciones* | Atxikipenen zenbatekoa / *Importe de las retenciones* |
|---|---|---|---|
| Diruzkoak / *Dinerarias* | 01 | 02 | 03 |

| | Errenten kopurua / *N.º de rentas* | Konturako sarreren oinarria / *Base de los ingresos a cuenta* | konturako sarreren zenbatekoa / *Importe de los ingresos a cuenta* |
|---|---|---|---|
| Gauzazkoak / *En especie* | 04 | 05 | 06 |

**II. Zergaren pean izanik atxikipenari lotuta ez dauden errentak /*II.Rentas sujetas al Impuesto no sometidas a retención:***

| | Errenten kopurua / *N.º de rentas* | Errenten zenbatekoa / *Importe de las rentas* |
|---|---|---|
| Diruzkoak / *Dinerarias* | 07 | 08 |

| | Errenten kopurua / *N.º de rentas* | Gauzazko errenten balioa / *Valor rentas en especie* |
|---|---|---|
| Gauzazkoak / *En especie* | 09 | 10 |

| | | |
|---|---|---|
| SARTZEKOA ( 03 + 06 ) / *A INGRESAR (03 + 06 )* | 11 | |
| | 12 | |
| LUZAMENDU ERREKARGUA / *RECARGO DE PRORROGA* | 13 | |
| BERANDUTZA KORRITUAK / *INTERESES DE DEMORA* | 14 | |
| SARTZEKO ZERGA ZORRA / *DEUDA TRIBUTARIA A INGRESAR* | 15 | |

☐ Aitorpen negatiboa / *Declaración negativa*

DATA / *FECHA* ..............................

ATXIKITZAILEAREN ZIGILUA ETA SINADURA
*SELLO Y FIRMA DEL RETENEDOR*

SARRERA FROGAGIRIA / *JUSTIFICANTE INGRESOS*

ORDAIN GUTUNA - *CARTA DE PAGO*

| ZIGILUA ETA SINADURA / *SELLO Y FIRMA* | ENTITATEAREN GAKOA / *CLAVE ENTIDAD* | DATA / *FECHA* | ZENBATEKOA / *IMPORTE* |
|---|---|---|---|

## JARRAIPIDEAK

### KONTU OROKORRAK

**Bat.**- Honako hauek erabili beharko dute eredu hau: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten gaineko atxikipena edo konturako sarrera egin beharra dutenek. Hauexek dira, hain zuzen ere: **1)** Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 19ko 7/1999 Foru Arauaren 30. artikuluko 1. atalean azaltzen direnak. **2)** Finantza-aktiboen eragiketetan, Zor Publikoaren baloreak eskualdatzean, eta inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen erakusgarri diren baloreak eskualdatzean edo berreskuratzean, 6/1999 F.D.aren 4.2. ataleko a), b) eta c) letretan ezarritakoaren arabera atxikipena edo konturako sarrera egin beharra daukatenek egin beharko dute atxikipena edo konturako sarrera. **3)** Sarien kasuan, horiek ematen dituen pertsona edo erakundeak egin beharko du atxikipena edo konturako sarrera.

**Bi.**- Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 19ko 7/1999 F.A.aren 30. artikuluko 4. atalean ezarritakoaren arabera atxikipenik edo konturako sarrerarik egin behar ez den kasuetan ere erabiliko dute 216 eredua aurreko atalean aipatutakoek. Kasu horietan, aitorpenari dagokion epealdian establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei ordaindutako errenten kopurua eta zenbatekoa adieraziko dira eta, bidezko denean, urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 29. artikuluko 2. puntuan ezarritakoaren arabera, aipatutako epealdian ez-egoiliarrek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako etekin eta ondare-irabazien kopurua eta zenbatekoa ere adieraziko dira.

**Hiru.**- Hala ere, aurreko lerroaldean ezarritakoaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko honako errenta hauek:
1.a) EEEZari buruzko Foru Arauaren 13.1.a) atalean aipatzen diren errentak.
2.a) Pertsona fisiko edo erakunde ez-egoiliarrek establezimendu iraunkorrik gabe Espainian jaulkitako baloreetatik sortutako errentak, zeinahi ere delarik ordainketa-agente gisa diharduten edo baloreen jaulkipen edo eskualdaketan bitartekari diren finantza-erakundeen egoitza dagoen lekua.
3.a) Zerga honen zergadunei ordaintzen zaizkien ez-egoiliarren kontuen etekinak, ordainketa Banco de España edo atzerriarekiko transakzio ekonomikoei buruzko araudiak aipatzen dituen erakunde erregistratuek establezimendu iraunkor bati egiten diotenean izan ezik.
4.a) Oharpenetako Zor Publikoaren korrituak, ordaintzeko edo atxikipenak itzultzeko prozedura berezi baten pean daudenak.
5.a) 6/1999 Foru Dekretuaren 28. artikuluko 1. ataleko b) eta c) letretan, atxikipena eta konturako sarrera egiteko beharretik salbuesten diren errentak.
6.a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Arauaren Azken Xedapenetariko Lehenengoan, 2. atalean, aipatzen diren errentak.

**Lau.**- Atxikipena edo konturako sarreraren zehaztapena. Atxikipena edo konturako sarrera zehazterakoan, EEEZari buruzko Foru Arauaren 24. artikuluan ezarritako karga-tasak –errenta motaren arabera– 6/1999 Foru Dekretuaren 31. artikuluan kalkulurako definitutako oinarriari aplikatuko zaizkio. Ezarpen bikoitza ekiditeko hitzarmenen bat aplikatzekoa bada, bertan ezartzen diren ezarpen mugak edo salbuespenak kontuan hartuz zehaztuko dira.

**<u>Adi:</u> Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei ondasun higiezinak erosten dizkietenek, EEEZari buruzko 7/1999 Foru Arauaren 24. artikuluko 2. atalean aipatzen den %5eko atxikipena egiteko, ez dute eredu hau erabili behar, berariaz horretarako dagoena baizik (211 eredua).**

**IDENTIFIKAZIOA**

Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzako Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuak ematen dituen identifikazio etiketak itsatsi beharko dira.

**SORTZAPENA**

**Ekitaldia.**- Aitorpenari dagokion urte naturala jarriko da.
**Epealdia.**- <u>Hiruhileko</u> aitorpena bada (orokorra):
**1T**= 1. hiruhilekoa; **2T**= 2. hiruhilekoa; **3T**= 3. hiruhilekoa; **4T**= 4. hiruhilekoa.
<u>Hileko</u> aitorpena bada (enpresa handiak):
**01**: urtarrila; **02**: otsaila; **03**: martxoa; **04**: apirila; **05**: maiatza; **06**: ekaina; **07**: uztaila; **08**: abuztua; **09**: iraila; **10**: urria; **11**: azaroa; **12**: abendua.

**LIKIDAZIOA**

**I. Atxikipenari lotutako errentak.**

<u>Diruzkoak:</u>

**01 laukia.**- **"Errenten kopurua"**. Aitorpenari dagokion hilabetean edo hiruhilekoan aitortzaileak atxikipena egin behar izan dueneko diruzko errenten kopuru osoa jarriko da.

**02 laukia.**- **"Atxikipen oinarria"**. 01 laukian aitortutako errentei dagozkien atxikipenen oinarrien batura osoa jarriko da.

**03 laukia.**- **"Atxikipenen zenbatekoa"**. 01 laukian aitortutako errentei dagozkien atxikipenen zenbateko osoa jarriko da.

<u>Gauzazkoak:</u>

**04 laukia.**- **"Errenten kopurua"**. Aitorpenari dagokion hilabetean edo hiruhilekoan aitortzaileak konturako sarrera egin behar izan dueneko gauzazko errenten kopuru osoa jarri beharko da.

**05 laukia.**- **"Konturako sarreren oinarria"**. 04 laukian aitortutako errentei dagozkien konturako sarrerak egiteko erabilitako oinarrien batura osoa jarriko da.

**06 laukia.**- **"Konturako sarreren zenbatekoa"**. 04 laukian aitortutako gauzazko errenten gainean egin beharreko konturako sarreren zenbateko osoa jarriko da.

**II. Zergaren pean izanik atxikipenari lotuta ez dauden errentak.**

<u>Diruzkoak:</u>

**07 laukia.**- **"Errenten kopurua"**. Zergaren pean eta atxikipenetik salbu dauden diruzko errenten kopuru osoa jarri beharko da, jarraipide hauetako "Kontu orrokorren" Bi eta Hiru ataletan ezarritakoaren arabera.

**08 laukia.**- **"Errenten zenbatekoa"**. 07 laukian aitortu diren errenten zenbateko osoa jarriko da.

<u>Gauzazkoak:</u>

**09 laukia.**- **Errenten kopurua"**. Zergaren pean eta konturako sarrera egitetik salbu dauden gauzazko errenten kopuru osoa jarri beharko da, jarraipide hauetako "Kontu orrokorren" Bi eta Hiru ataletan ezarritakoaren arabera.

**10 laukia.**- **"Gauzazko errenten balioa "**. 09 laukian aitortu diren errenten balio osoa jarriko da.

**III. Likidazioa guztira.**

**11 laukia.**- **"Sartzekoa"**. 03 eta 06 laukietan aitortu diren atxikipen eta konturako sarreren batura jarri beharko da.

**AITORPEN NEGATIBOA**

Atxikitzaileak edo konturako sarrera egin beharra duenak, aitorpenari betean edo hiruhilekoan, atxikipenari lotuta ez dauden errentak bakarrik jarri (07tik 10era arteko laukiak) eta, ondorioz, sartzeko zerga zorraren zenbatekoa (15 laukia) hutsa denean, horretarako dagoen laukian "X" bat markatu beharko du.

**AURKEZTEKO EPEA**

<u>Hiruhileko</u> aitorpena (orokorra): apirilaren, uztailaren, urriaren eta urtarrilaren lehenengo hogeita bost egunen barruan, aurreko hiruhileko naturalari dagozkion atxikipen eta konturako sarrerengatik.

<u>Hileko</u> aitorpena (enpresa handiak): dagokion hileko aitorpen-aldiaren hurrengo hilabetearen lehenengo hogeita bost egunen barruan, uztaileko aitorpena izan ezik, abuztua eta hurrengo irailaren lehenengo hamar egunen barruan aurkeztuko baita.

**Inprimakia datatuturik eta atxikitzaileak edo konturako sarrera egin beharra duenak edo horren legezko ordezkariak sinaturik egon beharko da.**

## *INSTRUCCIONES*

### *CUESTIONES GENERALES*

*__Uno.__- Este modelo deberá ser utilizado por los sujetos obligados a retener o a efectuar ingreso a cuenta sobre las rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanente por contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de no Residentes. Dichos sujetos, son los siguientes: __1º)__ Los sujetos a que se refiere el apartado 1 del artículo 30 de la Norma Foral 7/1999 de 19 de abril del Impuesto sobre la Renta de no Residentes. __2º)__ En las operaciones sobre activos financieros, en las transmisiones de valores de la Deuda Pública y en las transmisiones y reembolsos de acciones o participaciones representativas del capital o patrimonio de instituciones de inversión colectiva, deberán practicar retención o ingreso a cuenta los sujetos obligados a retener o ingresar a cuenta de acuerdo con lo establecido en el artículo 4.2, letras a), b) y c) del D.F. 6/1999. __3º)__ En el caso de premios, estará obligado a retener o a ingresar a cuenta la persona o entidad que los satisfaga.*

*__Dos.__- El modelo 216 también se utilizará por los citados obligados en los casos en los que, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 30 de la N.F. 7/1999, de 19 de abril, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, no proceda practicar retención o ingreso a cuenta. En estos casos, se indicará el número y el importe de las rentas satisfechas a los no residentes sin establecimiento permanente en el período a que se refiera la declaración y, cuando proceda, de acuerdo con lo dispuesto en el punto 2 del artículo 29 del D.F. 6/1999, de 26 de enero, también se indicará el número y el importe de los rendimientos y ganancias patrimoniales obtenidos por los no residentes sin mediación de establecimiento permanente en el referido período.*

*__Tres.__- No obstante lo anterior, no se tendrán en cuenta, a efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, las siguientes rentas:*
*1º/ Las rentas a que se refiere el artículo 13.1.a) de la N.F. del I.R.N.R.*
*2º/ Las rentas derivadas de valores emitidos en España por personas físicas o entidades no residentes sin mediación de establecimiento permanente, cualquiera que sea el lugar de residencia de las instituciones financieras que actúen como agentes de pago o medien en la emisión o transmisión de los valores.*
*3º/ Los rendimientos de las cuentas de no residentes que se satisfagan a contribuyentes por este Impuesto, salvo que el pago se realice a un establecimiento permanente, por el Banco de España o por las entidades registradas a que se refiere la normativa de transacciones económicas con el exterior.*
*4º/ Los intereses de la Deuda Pública en Anotaciones, sujetos a un procedimiento especial de pago de los mismos o de devolución de retenciones.*
*5º/ Las rentas exceptuadas de la obligación de retener y de ingresar a cuenta enumeradas en las letras b) y c) del apartado 1 del artículo 28 del Decreto Foral 6/1999.*
*6º/ Las rentas a que se refiere el apartado 2 de la Disposición Final Primera de la N. F. 24/1996 del Impuesto sobre Sociedades.*

*__Cuatro.__- Determinación de la retención o ingreso a cuenta. En la determinación de la retención o ingreso a cuenta se aplicarán los tipos de gravamen establecidos en el artículo 24 de la Norma Foral del I.R.N.R., en función del tipo de renta, sobre la base de cálculo definida en el artículo 31 del D.F. 6/1999. Si resulta aplicable un Convenio para evitar la doble imposición, se determinarán teniendo en cuenta los límites de imposición o las exenciones que se establezcan en el mismo.*

***<u>Atención:</u> los adquirentes de bienes inmuebles a no residentes sin establecimiento permanente, para practicar la retención del 5 por 100 a que se refiere el apartado 2 del artículo 24 de la N.F. 7/1999 del I.R.N.R., no utilizarán este modelo, sino el específico existente al efecto (modelo 211).***

***IDENTIFICACIÓN***

*Deberán adherirse las etiquetas identificativas que facilita el Servicio de Relación con los Contribuyentes de la Dirección de Hacienda de la Diputación Foral de Álava.*

***DEVENGO***

*__Ejercicio.__- se consignará el año natural al que corresponda la declaración.*
*__Período.__- Si se trata de declaración <u>trimestral</u> (con carácter general):*
*__1T__= 1er trimestre; __2T__= 2º trimestre; __3T__= 3er trimestre; __4T__= 4º trimestre.*
*Si se trata de declaración <u>mensual</u> (grandes empresas):*
*__01__: enero; __02__: febrero; __03__: marzo; __04__: abril; __05__: mayo; __06__: junio; __07__: julio; __08__: agosto; __09__: septiembre; __10__: octubre; __11__: noviembre; __12__: diciembre.*

***LIQUIDACIÓN***

***I. Rentas sometidas a retención.***

*<u>Dinerarias:</u>*

*__Casilla 01.__- "__N.º de rentas__". Deberá consignarse el número total de rentas dinerarias sobre las que el declarante haya venido obligado a retener en el mes o trimestre objeto de declaración.*

*__Casilla 02.__- "__Base de las retenciones__". Se consignará la suma total de las bases de retención correspondientes a las rentas declaradas en la casilla 01.*

*__Casilla 03.__- "__Importe de las retenciones__". Se consignará el importe total de las retenciones que correspondan a las rentas declaradas en la casilla 01.*

*<u>En especie:</u>*

*__Casilla 04.__- "__N.º de rentas__". Deberá consignarse el número total de rentas en especie sobre las que el declarante haya venido obligado a practicar ingreso a cuenta en el mes o trimestre objeto de declaración.*

*__Casilla 05.__- "__Base de los ingresos a cuenta__". Se consignará la suma total de las bases para efectuar los ingresos a cuenta correspondientes a las rentas declaradas en la casilla 04.*

*__Casilla 06.__- "__Importe de los ingresos a cuenta__". Se consignará el importe total de los ingresos a cuenta que corresponda efectuar sobre las rentas en especie declaradas en la casilla 04.*

***II. Rentas sujetas al Impuesto no sometidas a retención.***

*<u>Dinerarias:</u>*

*__Casilla 07.__- "__N.º de rentas__". Deberá consignarse el número total de rentas dinerarias sujetas al impuesto exceptuadas de retención, conforme a lo previsto el los apartados Dos y Tres, de las Cuestiones Generales de estas Instrucciones.*

*__Casilla 08.__- "__Importe de las rentas__". Se consignará el importe total de las rentas que se hayan declarado en la casilla 07.*

*<u>En especie:</u>*

*__Casilla 09.__- "__N.º de rentas__". Deberá consignarse el número total de rentas en especie sujetas al impuesto exceptuadas de practicar ingreso a cuenta, conforme a lo previsto en los apartados Dos y Tres, de las Cuestiones Generales de estas Instrucciones.*

*__Casilla 10.__- "__Valor rentas en especie__". Se consignará el valor total de las rentas que se hayan declarado en la casilla 09.*

***III. Total liquidación.***

*__Casilla 11.__- "__A ingresar__". Deberá consignarse la suma de las retenciones e ingresos a cuenta declarados en las casillas 03 y 06.*

***DECLARACIÓN NEGATIVA***

*Cuando el retenedor u obligado a ingresar a cuenta, en el mes o trimestre objeto de declaración, incluya exclusivamente rentas no sometidas a retención (casillas 07 a 10) y, por tanto, el importe de la deuda tributaria a ingresar (casilla 15) sea igual a cero, deberá marcar una "X" en la casilla indicada al efecto.*

***PLAZO DE PRESENTACIÓN***

*Declaración <u>trimestral</u> (con carácter general): durante los veinticinco primeros días naturales de los meses de abril, julio, octubre y enero, por las retenciones e ingresos a cuenta que correspondan al trimestre natural inmediato anterior.*

*Declaración <u>mensual</u> (grandes empresas): durante los veinticinco primeros días naturales del mes siguiente al período de declaración mensual que corresponda, excepto la declaración del mes de julio, que se presentará durante el mes de agosto y los diez primeros días naturales del mes de septiembre inmediatamente posterior.*

***El impreso deberá ir fechado y firmado por el retenedor u obligado a realizar el ingreso a cuenta o por su representante legal.***